



EXCMA. DIPUTACION DE GUIPUZCOA

SEMINARIO DE FILOLOGIA VARCA
"JELIO DE URQUIJO"
ADSCRITO A LA UNIVERSIDAD DE
VALLADOLID
-8-

Donostia 'n, 1956 urriak 4.

P. Lafitte jaunari

Uztaritze 'n

Jaun adiskidea,

Boletin-ekoei eman nien zure deia, eta bear bada zerbait igorri dizute onezkero. Ala ezpaltz ere, eztute askorik luzatuko.

Neroni ere eske batekin natorkizu. Arantzazu'ko batzarre an aipatu zen, baiña eztakit ongi zuri esan genizun. Sariketa ttiki bat antolatu dugu emen, eta argitasun guziak onekin batean dijoan paperean arki ditezke. Emango ote zendukete orren berri, nai duzuen eran -luze ala labur, Herria-n? Biotzez eskertuko genizueke.

Milla esker eta barka, otoi, gure ausardia.

Esanera gauzakazu, beti bezala. Ar itzazu gure goraintzi-rik oberenak

P.S.- Itzulia zera noski Parise 'tik, eta badakigu gogor lan egingo zendueh



EXCMA. DIPUTACIÓN PROVINCIAL
DE GUIPÚZCOA

1964 otsailak 3.

SEMINARIO DE FILOLOGIA YARCA
"JULIO DE URQUIJO"
ADSCRITO A LA UNIVERSIDAD DE
VALLADOLID

Pierre Lafitte jaunari
Ustaritzen

Ene adiskidea,

Barka zadazu zure joan den illaren 5-ekoak erantzunik izan ezpadu. Badakizu, noski, eri izan naizela eta orain asi naiz, poli-ki-poliki, ain luzaz baztertuak izan ditudan lanak ukitzen. Orrexegatik etzenduen erantzunik izan.

Orrexegatik ere, eztut Euskaltzaindian zure lantxo ederra irakurri. Azken biltzarrean zerorrek irakurri ezpazendu, urrengoan agertuko dut.

Milla esker ere esku artean, zuri eskerrak, dudan Oihenart'en obren iztegiagatik. Merezi luke argitara agertzea, baiña luzea da eta eztakit nola konpon^{du} ginakean.

Etxekoek eta nik ere urte on eta baketsua opa dizugu biotz--biotzez, berandu bederen.



EXCMA. DIPUTACIÓN PROVINCIAL
DE GUIPÚZCOA

SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA
"JULIO DE URQUIJO"
ADSCRITO A LA UNIVERSIDAD DE
VALLADOLID

Donostia'n, 1964-VII-9.

Pierre Lafitte kalonje jaunari
Uztaritzen

Jaun adiskidea,

Eske batekin natorkizu. Donostia'ko aur
tengo euskal-jaletan, datorren agorrilean, zenbait itzaldi izango
dira, urtero bezala, eta Azkue zenaren eun-urtarrena dugun ezker
aren bizitza eta lanak aipatu nai lituzkete: baztertuxe gelditu
baita Azkue aurten kideak zituen Agirre eta Unamuno'ren ondoan.
Ori dela eta, zutaz oroitu dira. Nai zenduke itzaldi bat egin?
Gaia nai duzun aldetik ar dezakezu --iztegi-lanak, gramatika, "Gi-
puzkera osotua", erri-jakintza, folklorea,.... eta, jakiña dago,
nai duzun bezala erabili. Mintzaldiak pagatu ere egiten dituzte,
sobera ezpada ere.

Biziro poztuko giñake guztiok baiezkotan ihardesten baze-
nigu. Zure erantzunaren begira gelditzen naiz, bada.

Nolanai ere, ar itzazu ene goraintzirik oberenak. Bio-
tzez,



UNIVERSIDAD DE SALAMANCA
FACULTAD DE FILOSOFIA Y LETRAS

10-II-1968.

Piarres Lafitte jaun kalonjeari
Uztaritzen

Adiskide jauna,

Onera etorri berri artako lanekin eta gripe delakoak ~~erri~~ aski eduki ninduelako gero, berandu nabil zure joan del illaren 12-ko letra atsegiñari erantzuten. Barka zadazu, otoi, ahal baledi.

Zorionak lehen-lehenik, ez baitakit bidali nizkizun --baitz uste dut, alaz guztiz ere-- egin duzun lan ederragatik. Milla esker, gaiñera, orrezaz gaiñera igorri dizkidazun xehetasun guztiengatik. Biziki poztu naiz oriek jakiteaz.

Entzun nuen, eta Allières'engandik entzun ere, erdietsi duzula azkenik euskal-gaiak lantzeko bear zenduen astia. Berri atsegiña da ori, egiazki, euskaltzale eta euskalari guztiontzat.

Ba dakizu non naukazun uda arte, Aste Sainduan izan ezik. Agur eta goraintzi, biotz-biotzez,

Lafitte